

# ...etta kittO!


814 zkia. 2012-VII-13

ASTEKARIA

# Gerra eta *zuzeneko* *begiradak* Bakea



Teilatuak Fatxadak Sukaldeak  
Gremioen koordinazioa etab.



**JORGE VEGA S.L.**  
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34

F. Calbetón, 4 - 3. solairua [jorgevega.eibar@gmail.com](mailto:jorgevega.eibar@gmail.com)



**DOKTOREAK:**

Antonio Murillo / Ainhoa Zulueta / Susana Sierra / Maitane G. Iñiguez

**Kasu konplexuetako  
eta hezur eta  
hortzoi gabeko  
inplantologian  
ADITUAK**

**PUNTA-PUNTAKO  
inplantologia,  
OSTEOINKORPORAZIO  
teknika BERRIA  
erabiliz**



# *Inplantologia*





**ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostegunera:

10-14 / 16-20h

Ostiraletan: 10-14 / 15-19h

*Prezio  
bereziaak!!!*



Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



**IRAZABAL**  
clínica dental

[www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com) - [info@clinicairazabal.com](mailto:info@clinicairazabal.com)



**ARGITARATZAILEA:**

...eta kitto! Euskara Elkarte

**HELBIDEA:**

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

**TELEFONOAK:**

943 20 67 76 / 943 20 09 18

**FAXA:**

943 20 28 72

**Astekariaren E-MAILak:**

erredakzioa@etakitto.com  
komunikabideak@etakitto.com  
publizitatea@etakitto.com

**Elkartearen E-MAILak:**

elkartea@etakitto.com  
normalizazioa@etakitto.com

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**

Itziar Albizu

Maidar Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

**ADMINISTRAZIOA:**

Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**

Koldo Mitxelena

**ERREDAKZIO-BURUA:**

Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Jose Luis Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

**HIZKUNTZA ARDURA:**

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

**PUBLIZITATEA:**

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Enrique Meneses

**BANAKETA-ARDURADUNA:**

Ainhoa Luz

**TIRADA:**

8.000 ale

**INPRIMATEGLIA:**

GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:**

...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:**

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*/k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**ISKO NAFARRA.**- Korridetarako zezenak. "Ez Lasturko zezentxuak, isko nafarrak tentatzen zittuan, plaza erdixan, jakiagaz".

**ISKOTU.**- Behia ernaldtu. "Gure behixa gaur daroiagu iskotzera".

**ISLA.**- Hodeiertzaren argitasuna. "Islan agirixan biharra eigttia, ez zala ona esaten eben zaharrak".

**ISOI.**- Astoari gelditzeko agindua. "Iso, astua, heldu gara errotara eta!".



Argazkiko taldekoek, Sanferminak ospatzera Iruñera joateaz gain, gure astekariak armatuta joan ziren bertaraino, zezenei bide zuzena erakusteko.



### ERREDAKZIOAREN OHARRA

Hurrengo alea, **hilaren 20koa, azkena** izango da oporrek hartu aurretik. Dozein informazio edo zorion agur gurean kaleratu nahi baduzue, izan ezazue kontuan.

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Eredu matematikoa eta estatistika aplikatuz, euskal herritarren %33k euskaraz baldin badaki, herritarren %77k egingo du euskaraz. Alde horretatik, euskal hiztunak hizkuntzari dion atxikimendua adierazten du erabilera %13an egoteak, estatistikoki espero zitekeena baino bost puntu gorago. Hala ere, Bilbo Handiak, Gasteizek eta Iruñeak hartzen badituzte euskal herritarren erdia, horiek denek ez dute euskara entzun ere egiten kalean, gehienentzat ez da euskararik existitzen. Gasteizen, esaterako, arabiera gehiago entzuten da kalean euskara baino. Euskararen kale erabilaren %13 hori oso maximo exkaxa da guretzat: Irlandan %12ak hizkuntza galtzea ekarri zuen"

(Xabier Isasi, EHUko irakaslea eta Soziolinguistika Klusterraren kidea)

"Israel eta Palestinaren artekoa ez da konpontzen jendeak ez diolako errealitateari begiratu nahi. Zer dago istorio honen amaieran? Israel 1967ko mugetara erretiratu behar da eta benetako irtenbidea bilatu behar zaie Jerusalem-i eta itzulerari. Baina konfliktua ezin da politikoki edo militariki konpondu, giza-arazoa baita: ez dugu Nazio Batuen Erakundea behar, psikiatra bat dugu beharrezko. Israel-ek asko dago esnatu eta palestinarrek joan direla amesten duena, eta alderantziz. Nik eskubidea dut Marilyn Monroe-rekin oheratzen naizela amesteko, baina esnatzen naizenean jakin beharko nuke nire emaztea beste bat dela. Bakea sinatzeko, justizia lortzea ezinbestekoa da"

(Daniel Barenboim, orkestra-zuzendaria eta pianojolea)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria




Merkealdixen ferixa bi egitten dira herrixan: neguan bata eta udiarekin bestia. / LEIRE ITURBE

## Udako merkealdixak Toribio Etxebarrian

**DATORREN ASTIAN, HILLAREN 18, 19 ETA 20-XAN** udako merkealdixeri errematia emongo jakue Toribio Etxebarrian. Urteroko moduan, Eibar-ko dendarixak postuak ipiñiko

dittue kalian, hiru egunetan euren produktuak prezio berezixan salgai eskintzeko, 10.00-etatik 20.00etara. Aurtengo ediziñuan 26 dendarik hartuko dabe parte azokan.




## Errebalerako gestiño publikua eskatzen

**EIBARKO BILDUKO ORDEZKARIXAK PRENTSAURREKUAN ESANDAKUAREN** arabera, "Errebalgo oruberako gestiño publikuaren aukeria aztertzia proposatzen dogu, hau da, lurrazpixin aparkalekuak sortzeko aukeria emongo daben bideragarrittasun plana". Bilduren ikuspegixari jarraituta, merkatu barrixa eta estalitako parkia jaso biharko leukez.

Errebalgo proiektuarekin interesa agertu daben pare bat enpresa bazeguala azaldu dabe udal gobernuko kidiak azken aldixan, baiña Bildukuen berbetan, "momenturen batian interesa izan daben promotoriak eritzixa kanbixau dabe eta gaur egunian ez dabe makro

merkataritza-gune batendako errentagarrittasun baldintzarik ikusten". Alkatiak plenuan emondako erantzunak kezkatzen dittu bereziki: "Argi laga eban ez dabela biderik emongo gai honen gaiñian atzera be jarduteko. 10.000 m2-ko azalera barriko merkataritza-guniaren aldeko jarrerria agertu eban eta gaiñera, merkatuak erritmua ezarriko dabela gaiñerata, promotoraren baten onsepena jaso arte baldintza-pliegorik eterako ez dabela esan eban". Beste 10 urtian "ezin dala enpresa espekulatzaillien zaiñ egon" pentsatzen dabe eta, bestiak beste, "Rialto alkatziarren udal-kutxatik hillero 4.372 euro pagatzen dirala" gogora ekarri eben.



## Barrikuntzarako forua sortu dabe

**GURE HERRIXAREN ERRONKEN GAIÑEKO EZTABAIDA ETA ALKARRIZKETIA SUSTATZEKO** asmoz, Udalak barrikuntza forua abiarazi zeban astelehenian. Ekimena Ekonomia Garapen, Berrikuntza eta Enplegu sailak bultzatu dau. Bestiak beste, garapen ekonomikuari lotutako alkatiak, heziketa zentruak, sindikatuak, hainbat enpresa esanguratsuk eta baita gaixarekin loturaren bat daken udal-sailletako arduradunak be dihardue foruan parte hartzen eta saiuen helburu nagusixa biharra sustatzeko proposamenak sortzia izango da. Antolatzaillien asmua egitura honen funtzionamendua egonkorra izatia bada be, jorratzen diran gaixen arabera, bertan parte hartuko dabe pertsona eta alkatiak aldatzen jua leikez. Lehelengo topake- tiak hiru saio izango dittu, aste honetan bertan egindakua eta datoren astelehenian eta hurrenguan egingo diran bixak. Saiuak dinamizatzen, bestalde, Izinker enpresakuak jardungo dabe.

## Rekursua sartuko detsa ...eta kitto!-k Jaurlaritzako ebazpenari

**AZKEN ASTIETAN PUNTUAZIÑO ETA EBAZPENAK AZTERTU ETA GERO**, ...eta kitto! Euskara Elkarteko zuzendaritzak 2012ko Hedabideen diru-laguntziari erreskursua egittia erabagi dau. Horrekin batera, Hizkuntza Politikarako sailburuordetzako arduradunekin harremanetan jarri eta aurtengo diru-laguntzaren jaitisiera nabarmenaren arrazoiak ere aurrez aurre argitzen saiatu da zuzendaritza. Izan ere, iaz baiño ixa %44 gutxiago jasoko dau esku artian dakazun aldizkarixak, 26.402,67 euro gitxiago hain zuzen be, eta horrek eragin zuzena eukiko dau irailletik aurrera produktuan eta lan


egitteko moduan. Krisi garaixan publizidadiak behera egitten dihardu, baiña diru-laguntza bittartez jasotako diruak eukitzen diharduen jaitsierak oindiok nabarmenaguak dira. Oiñ arte egin daben moduan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak diru-laguntzen auziaren bueltan sortzen dan informaziño osua publiko egingo dau astekarixa erabillitta.



Subenziñuetan diru gitxiago jasotziak eragiña izango dau irailletik aurreko lan-jardunian. / EKHI BELAR

## Salado eta Beorlegi gogoratuko dittue Sankristobalen

**GAUR 19.00-ETAN TXUPINAZUAREKIN HASI-KO DIRA SAN KRISTOBALGO JAIXAK** eta hasi eta berehala, auzokide ezagunari urtero egiten jakon omenaldixan Fernando Beorlegi margolarixa eukiko dabe goguan. Horren harira, gainera, egunotan, Beorlegiren margolanen kopixekin erakusketia dago martxan auzoko tabernetan. Gaurko programiak, bestiak beste, Mauxitxa txarangiarekin kalejira, haurrendako jolasak, tortilla, txorizua, urdaiazpikua eta gaztaia auzoko tabernetan banatzia jasotzen dittu. Gabian, barriz, Mikel Arrietak Joe Satrianiri eskindutako kontzertuaren ostian, jaixetako bigarren omenaldixaren txandia aillegauko da gaberdixarekin batera: Lisker taldekuak R&R gaba eskinduko dabe, iaz hil zan Josean Salado bateriajole-ohia goguan. Emanaldixan Lisker taldiarekin batera tal-dian jardundako beste batzuk be hartuko dabe parte, Ernesto Gómez eta Jesús Gil tartian.



Jaixak zapatuan eta domekan segiduko dau, egun osuan zihar egingo diran jarduerekin (programa osua 20. orrixan, agendan irakorri zein-kie). Egingo diranen artian, baiña, zapatu gabian King Africa ezagunak eskinduko daben kontzertuak jende mordua erakartzia espero dabe antolatzailliak.

## Burdiñolen ibilbidia egingo da domekan

**ARBASOEN DEIA BISITA-GIDATUEN PROGRAMIAREN BARRUAN DOMEKAN BURDIÑOLEN IBILBIDIA** egitteko aukeria izango dau nahi dabenak. 10.00etan Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimon baillara juango dira bisitariak eta bertan ibilbide labur eta erraza egingo dabe burdiñola, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituz. Baillara hori ezagutu ostian, Mendarotik Elgoibarrera trenez juango dira, Makiña Erremintaren Museua bisitatzeko. Txanguaren helburua Debabarreneko industria eta makiña erremintaren kultura ezagutzera emotia da eta ibilbide osua gida-interprete baten azalpenak lagunduta egingo da. Erreserbak egitteko 943191172 /



695783656 telefonuetara deittu leike edo debanatura@hotmail.com helbidera idatzi.

## autuan

### TXOSNEN GAIÑEKO BILLERIA

Arrateko jaixetan txosnia ipintzeko eskaeria presentau dabenak horren gainian berba egitteko billeria eukiko dabe astelehenian, hillaren 16xan, 13.00ean udaletzeko 2. pisan.

### MINBIZIXAREN KONTRA

Gipuzkoako Minbizixaren Kontrako Alkartiak ekainian egindako dirubilketan 1.253 euro batzia lortu eben eta alkarteko ordekarixak eskerrak emon nahi detsez lagundu daben guztieri.

### TXANGOA KARRANTZARA

Ipuruako jubilatuen etxeak antolatuta, hilaren 20an txangoa egingo dute Karrantzara. Autobusa 09.00etan irtengo da eta prezioa 25 eurokoa da (bazkide ez direnak, 30).

## Armerixa Formula Student monoplazarekin

**FORMULA STUDENT BIZKAIA 2012, BILBOKO INGENIARITZA TEKNIKOKO ESKOLIAK** garatzen diharduen monoplazaren proiektuan parte hartzen dihardu Armerixa Eskoliak. Hain zuzen be, Armerixakuak pieza mekanikuen diseiñu eta produkziñuan eta atal elektronikorako zirkuitu inpresuetan dihardue biharrian, fabrikatzia aurreikusitta daguazen automobil modelo bi-xetan (motor elektrikodunian eta konbustiño-motordunian) erabiltzeko.



## Ikasturtia agurtzeko asteburupasa

**PAGATXAKO ANDRAK IKASTURTE AMAIERIA OSPATZEKO URTEERIA** egin dabe oiñ egun batzuk. Asteburua aprobetxauta, Toledo, Madril eta Segovian egon dira eta bertako tokirik aipagarrixenak ezagutzeko aukeria izan dabe.

## Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

**E**usko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaitu ere.

Estrategikoa, bai, oinarrizko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

### Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sor-



tzeko eskaera egiteaz gain, eskaera ezatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru-laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredia ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horietan sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen bizi-raupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla guztiontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu ja-

kiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

### Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berri ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Danon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.


*Eider Carton (Elhuyar), Mikel Irizar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta Xabier Letona (Argia), Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen izenean*



## ALICIA GARCÍA DELGADO

2012ko uztailaren 4an hil zen,  
81 urterekin

**Familiaren izenean, ESKERRIK BEROENA** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.



*Ekainaren 28xan Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen (LGTB) Nazioarteko eguna ospatu zan mundu osuan. Holan, hiri askotan eurenganako tolerantzixa eta LGTBren bardintasunaren aldeko aldarrikapenak egin ziran.*

## Gizartiak sexu aukera guztiak onartzen dittuala uste dozu?



**CRISTINA MARIDUEÑA**  
36 urte  
etxeoandria

Pentsatzen dot normaltasunez ikusten dala. Ez dot pentsatzen homosexualidadia jendia rendako ezer arrarua danik eta gizartiak onartzen dau. Agintian daguaznak onartu badabe, gizartian onartuta dagan seiñale.



**FRANCISCO MORCILLO**  
61 urte  
jubilaua

Ez dot pentsatzen orokorrian normal ikusten danik. Halanda be, jendiak homosexualidadia onartzen dau, holan pentsau edo sentitzen dabean jendia daguala, eta pentsatzen dot gizartian sosiguz-sosiguz onartzen doiala.


**JOSE ANTONIO RODRÍGUEZ**  
50 urte  
bihargiña

Gizartia asko aldatu da azken urtietan eta begittantzen jata gaur egunian homosexualidadia normaltasunez ikusten dala. Argi dago danetariko jendia daguala eta batzuk ez dabela normal ikusiko, baiña gehixenak baietz, onartzen dabela pentsatzen dot.



**IRENE GARCIA**  
37 urte  
langabia

Begittantzen jata gizartiak homosexualidadia normal ikusten dabela. Nere inguruan eta nik, behintzat, holan ikusten dogu. Nere famelixako bat, adibidez, beran sexu bardiñeko pertsona batekin ezkondu da Argentinan.



## Helbidea

**URKIZU PASEALEKUA, 13**  
Orbeako dorreetako  
1. solairua

**CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA**

☎ **943 12 02 00** ☎ **943 12 02 04**

1 Kardiologia	10 Barne Medikuntza
2 Zirugia	11 Radiologia
3 Dermatologia	12 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	13 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	14 Koloproktologia
6 Ortodontzia	15 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	16 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	17 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	

## Funeuskadi Eibar

SERVICIOS FUNERARIOS

Bellatokia Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

Bulegoa:  
Eibarzarreta, 6

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**


**☎ 943 82 15 39** - [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

**Funeuskadi**  
El primer servicio funerario en Eibar

• Eibar • Donostia • Bilbao • Barakaldo • Leiza • Getxo • Sestao • Portugalete • Santurtzi • Galdakao • Sodupe • Espinosa de las Monjas •

1988  
Euzko Legebiltzariaren  
Anerazpena

Martitzenian, hillaren 17xan zabalduko dabe "Gerra eta Bakea. Zuzeneko begiradak" izenburuko erakusketia Portalean. Euskadi 2012 Fundaziñuaren laguntasunarekin antolatutako exposiziñua Eibarko bonbardaketiaren 75. urteurrena gogoratzeko programaziñuaren testuinguruan presentauko dabe. Abuztuaren 9ra bittartian, mundu maillan ospetsuenen artian daguzen 33 prensa-argazkilariren lanak ikusteko aukeria izango da, beti be gerra eta bakia konzeptueri lotutakuak.



# GERRA ETA BAKIA

## prensa-argazkilarixen begixetatik ikusitta

**B**ake eta Askatasunaren aldeko Kulturaren Urtia da aurtengua eta horren harira bildu dittue argazkilariz egazunen erretratuak herririk herri daroiaten erakusketan: Goran Tomasevic, Enrique Meneses, Don MacCullin, Carolyn Cole, Patrick Chauvel, David Burnett, Samuel Aranda... eta holan, 33 lagunen izen-abizenekin zerrendia osatu arte. Eibarren baiño lehen Gernikako Bakearen Museuan eta Donostiako San Telmo Museuan erakutsi dittue erretratuak eta Portalean erakusketia itxi ostian, Bilboko Zabalguneko Merkatuan (abuztuaren 27tik urriaren 18ra) eta Gasteizko Vital Kutxaren Fundaziño Aretuan

(urriaren 23tik abenduaren 11ra) egongo da erakusketia bisitatzeko aukeria.

Exposiziñuan munduko 15 herrialde diferentietako 33 argazkilarik hartzen dabe parte. Gehixenak gizonezkuak dira, baiña tartian badagoz 7 andra. Argazkilarixen jatorrixari begiratzan badetsagu, barriz, 8 Estatu Batuetakuak dira, beste horrenbeste Espaiñiakuak, bi Indiakuak, beste bi Argentinakuak, beste bi Erresuma Batukuak eta Pakistaneko, Gazako eremu palestino-ko, Kolonbiako, Belgikako, Serbiako, Alemaniako, Italiako, Irango eta Greziako argazkilariz banak osatzen dabe parte-hartzaillien zerrendia.

Munduko herrialde diferentietako hamai-ka gatazkatan euren kamariarekin hartutako argazkixak urtietan tarte zabala islatzen dabe. Ikusteko moduan izango diranen artian zaharrena 1958ko otsaillian etaratakua da, Enrique Menesesek Kubako reboluziñuan, Pino del Aguako burrukan hartutako irudixa (aldizkari honetako portadarako aukeratutakua, hain zuzen be). Bertan Fidel Castro, Ernesto "Che" Guevara eta eurekin batera Kubako Sierra Maestran burrukan jardundako beste batzuk ikusi geinkez eta erretratu horrek argazki-kazetaritza arluan banatzen dan saririk inportantiena emon zetsan bere egilliari: World Press Photo premixua.





## argazkilarixak

Adrees Latif (Pakistan) 1973  
 Ahmed Jadallah (Gaza, Palestina) 1970  
 Altaf Qadri (India) 1976  
 Álvaro Ybarra Zavala (Espainia) 1979  
 Ami Vitale (Estatu Batuak) 1971  
 Ariana Cubillos (Colombia) 1974  
 Ben Lowy (Estatu Batuak) 1979  
 Bruno Stevens (Belgika) 1959  
 Carlos Barria (Argentina) 1979  
 Carolyn Cole (Estatu Batuak) 1961  
 David Burnett (Estatu Batuak) 1946  
 Don McCullin (Erresuma Batua) 1935  
 Emilio Morenatti (Espainia) 1969  
 Enrique Meneses (Espainia) 1929  
 Fernando Molerés (Espainia) 1963  
 Finbarr O'Reilly (Erresuma Batua) 1971  
 Gervasio Sánchez (Espainia) 1959  
 Goran Tomasevic (Serbia) 1969  
 Julie Jacobson (Estatu Batuak) 1969  
 Kai Wiedenhöfer (Alemania) 1966  
 Kenneth Jarecke (Estatu Batuak) 1963  
 Lynsey Addario (Estatu Batuak) 1973  
 Paolo Pellegrin (Italia) 1964  
 Patrick Chauvel (Frantzia) 1949  
 Reza Deghati (Iran) 1952  
 Samuel Aranda (Espainia) 1979  
 Sandra Balsells (Espainia) 1966  
 Santiago Lyon (Espainia) 1966  
 Sarah Caron (Frantzia) 1970  
 Saurabh Das (India) 1972  
 Stanley Greene (Estatu Batuak) 1949  
 Walter Astrada (Argentina) 1974  
 Yannis Behrakis (Grezia) 1969

Eta denporan guregandik gertuen da-  
 guan argazkixa 2011ko urrixan Samuel  
 Arandak etaratakua da: Sanaá-n (Yemen)  
 frankotiradore baten tiruak zauritutako se-  
 mia besuetan dakan ama, "sharshaf" dala-  
 kua jantzita dakala, semia konsolatzeko  
 ahalegiñetan ikusi geinkez eta kasu hone-  
 tan be erretratuaren egilliak World Press  
 Photo sarixa jaso dau, 2012xan bertan.



Neska afganiarra  
 Tora Bora eskualdian (2004).

Reza Deghati

### Gerra eta bakiandako eszenarixuak

Horren bixen bittartian, munduko txoko  
 diferentietan sasoi ezberdinetan hartuta-  
 kuak osatzen dabe erakusketarako osatu-  
 tako bildumia: Indiako soldaduak Kaxmirgo  
 Dal lakuaren inguruan patrullatzen, Rangu-  
 nen, Birmaniako junta militarren kontrako  
 protestetan soldau baten balak hil eban  
 Kenji Nagai Japoniako reporterua, Haitin  
 lurrikaria gertatu baiño 5 urte lehenago ja-  
 narixa banatzian gertatutako iskanbillak,  
 senarrak azidua aurpegira botata erretako  
 Pakistango andrazkua, gosiaren biktimeta-  
 ko bat Somalian, frankotiradore batek hil-  
 dako andrazkua Sarajevo, Palestinako lu-  
 rralde okupauetan jasotako legez kanpoko  
 asentamenduak, Irak, Afganistan, Ruanda,  
 Kongoko Errepublika Demokratikua... Bai-

ña gehixenak herrialde horrek gerra eta su-  
 frimenduarekin zuzenian lotzen badittugu  
 be, eszenarixua larregi kanbixau barik be  
 bakiarekin lotutako irudixak hartzia posible  
 dala ikusteko aukeria emongo desku era-  
 kusketiak.

### Lekuko zuzenen begiradak

Izan be, erakusketia preparatzeko enkar-  
 gua Paco Valderrama "Periscopio" argazki-  
 kazetaritza jaialdiko arduradunari egin ze-  
 tzen eta honek, gatazka tokixetan erretra-  
 tuak etarutzen esperientzixa haundixa da-  
 ken eta mundu maillan benetan ospetsuak  
 diran 33 erreportari grafikungana jo eban,  
 euren artxibuak astindu eta erretrato bi au-  
 keratzeko eskatzen. Baiña eskaeria hori  
 baiño zihetzagua izan zan: aukeratutako  
 erretratuetao batek gerria irudikatu bihar  
 eban eta bestiak, barriz, bakia. Hortik au-  
 rrera argazkilari baktaxari askatasun osua  
 emon zetsen artxibotik nahi ebena aukera-  
 tzeko: irudixak argitaratutakuak zein sekula  
 argitaratu barikuak izan leikiazen, ezagu-  
 nak edo ezezagunak, fetxa diferentietak-  
 kuak, euren artian loturaren bat dakenak  
 edo ez, zuri-baltzian edo koloretan eginda-  
 kuak. Azken batian, konzepto bixak irudika-  
 tzeko argazkixen aukeraketia prensa-ar-  
 gazkilari baktaxaren esku laga eban Valde-  
 rramak eta, holan, datorren astetik aurrera  
 ikusgai izango diranak osatzen daben ko-  
 lekziñua, moduren batian esateko, mundu-  
 ko gatazkak bertatik bertara ezagutzen da-  
 benen gerra eta bakiaren ikuspegixa emon-  
 go deskue. Kamariaren beste aldian egon  
 diranen zuzeneko begiradak.

Agure afganiarra errepede onduan platanuak saltzen Kabulén (2009).



Altaf Qadri

TEEN-  
AJEA



Ustekabe fanfarreak presidente berria dauka: Xabier Oruesagasti. Saxofoia jotzen duen 17 urteko gazteak kargua hartu du eta bere gaztetasunak Ustekabek azken urte bietan bizi izan duen berritzea erakusten du. Izan ere, azken urte bietan 13 kide berri sartu dira taldean.

**XABIER ORUESAGASTI (Ustekabe):**  
**“Nahiko nahasia izan zen lehen emanaldia”**

**- Nola sortu zitzazun Ustekabe fanfarreako presidente izateko aukera?**

Aurretik zegoen presidenteak kargo asko zituen eta, nekatuta zegoenez, ardura hori laga zuen. Hori bai, inongo giro txar barik. Ardurak banatu behar zirela ikusi genuen, horrela txar-rangaren martxa eramatea errazagoa izango zelako. Orduan, taldeko gazteak animatzen hasi ginen eta gazteen artean fanfarrean denbora gehien daramana ni naizenez, nik hartu nuen presidente kargua. Nire burua aurkeztu eta gainontze-koak ados egon ziren.

**- Zer moduz presidente bezala bizi dituzun lehen asteak?**

Lehen emanaldia nahiko nahasia izan zen. Jendea falta zenez, dei ugari egin behar izan nituen errefortzu bila. Normalean 6 bat dei egin behar dituzu eta lehen emanaldi hortan 20 bat egin behar izan nituen jendea topatzeko. Arduratu egin nintzen, baina emanaldia ondo irten zen gero.

**- Zeintzuk dira presidente moduan bete behar dituzun funtzioak?**

Kontratatzeko gaituztenez nirekin egin behar dute, prezioa negoziatzeko eta abar. Gero aurrekontuak, fakturak eta horrelakoak kudeatu behar ditut. Gero, presidenteordea eta biok beste kideekin kontaktuan jartzen gara entsegu eta emanaldietarako. Dena koordinatzea da ardura.

**- Noiztik Ustekabeko kide?**

Nahiko gazte hasi nintzen, 2007-2008 urtean. Eibarko Danborradan egin nuen lehen saioa. 11-12 urte nituen txar-rangan hasi nintzen.

**- Eta aurretik non aritu zinen?**

Musika Eskolan ibili nintzen txikitan, baita hango bandan ere. Nire aitxita Musika Eskolako atezaina izan zen urtetan, eta Ustekabeko Ekhi Zugasti eta Josu Mendicutek ikusi egin ninduten eta hari ni txar-rangan sartzeko esan zioten.

**- Nola daukazue agenda udarra begira?**

Badugu hainbat emanaldi lotuta. Uztailaren 28an Errioxako kanping batean arituko gara, eta Astigarragan, Laudion eta beste hainbat tokitan ere bai.

**MUGICA**  
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

**HANSROHE** KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

**Egiguretarren, 18**  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan  
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**

**EHORZKETA-BEILATOKIA**

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:  
Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:  
943 201095 Faxa: 943 202564

## Ikasleen %98,32ak gainditu du selektibitatea Gipuzkoan

Unibertsitatean sartu ahal izateko gehiengoak hartzen duen bidea selektibitatea egitearena da. Urtero mila gazte batzen da Euskal Autonomi Elkartean (EAE) hiru egunetan zehar proba hau pasatzeko eta, normalean, ehuneko handi batek proba gainditzen du.

Ekainean egin ziren selektibitateko fase orokorreko probak eta EAEko datuak hartuta, Gipuzkoakoak dira portzentairik onenak dituztenak. Izan ere, Gipuzkoan azterketara aurkeztu ziren %98,32k gainditu zuen proba, Bizkaian eta Araban %95,99

eta %97,41k gainditu zutelarik hurrenez hurren. Horrela, Gipuzkoan probara aurkeztu ziren 3.149 ikaslelik 3.096k egin zuten aurrera. Hiru probintziak kontutan hartuta, %97,06 izan zen azterketa gainditu zutenen portzentaia, 3.210 ikaslelik 3.035.

### Azterketa gehiago euskaraz

Hizkuntzari dagokionean, azterketa euskaraz egin dutenen kopurua gaztelaniaz egin dutenena baino handiagoa izan da (5.115 euskaraz eta 3.035 gaztelaniaz). Proba euskaraz egin dutenen artean gai diren portzentaia %98,61ekoa da eta, gaztelaniaz jardun dutenen ikasleen artean, %94,55ekoa.

Ikastetxeen izaera kontutan hartuz gero, ikastetxe publikoetako baino bestelako ikastetxeetako ikasle gehiagok egin dute selektibitatea (publikoetako 3.843 eta



bestelakoetako 4.554). Ikastetxe publikoetako aurkeztuen %96,46k gainditu du proba eta bestelako ikastetxeetako %97,56k.

### EAEko batz besteko nota: 6,37

Gipuzkoan egon da selektibitatea gainditu dutenen portzentairik altuena, eta azterketaren batez besteko nota altuena ere bertan lortu da (6,58; Bizkaian 6,23 eta Araban 6,33 izan direlarik). EAE bere osotasunean hartuz gero, batez besteko nota 6,37koa izan da.



## Gaztetxeko kamiseten diseinua zure esku

Eibarko Gaztetxeak proposamen hau luzatzen du: gaztetxearen kamiseta diseinatzea. Proposamen irekia da eta edonork diseinatu ahal izango du kamiseta. Ekimena luzatu dutenen berbetan, *"berdin da zein marrazki izan, polita edo zatarra den... gogo eta maitasunarekin eginda badago, nahikoa da!"*.

Antolatzaileen asmoa kamiseta Arrateko jaietarako ateratzea da,

beraz, dena sasoiz egin eta kamiseta jaietarako prest egon ahal izateko, abuztuaren 6ra arte ipini dute proposamenak jasotzeko epea. Parte hartu ahal izateko, diseinuak eibarko\_gazte\_asanblada@hotmail.com helbidera bidali behar dira edo gaztetxeko asanbladara bertara eraman. *"Animatu zaitezte eta lagun bati interesatu ahal zaio-la pentsatzen baduzue, abisatu iezaiozue"*, diote antolatzaileek.



## Hegoamerikako ordezkariak UNI-an

HEGOAMERIKAKO HAINBAT HERRIALDEKO 17 GIZARTE ERAKUNDETAKO ORDEZKARIAK egunotan Hezkuntza Esparruan ostatu hartuta daude, Mondragon Unibertsitateko Lanki Lankidetzak Ikertegiak ekonomia solidarioaren inguruan ematen diharduen kurtsoan parte hartzen duten bitartean. Apirilaz geroztik Euskadin dagoen ordezkarietan Argentina, Bolivia, Nikaragua, El Salvador, Brasil, Kolombia, Txile eta Ekuadorretik etorritakoak daude.

# + OSASUN GAZDA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra  
- terapia neurala  
- osteopatia

**miren albistegi sojo**  
HELVIDE ETA TELEFONO BERRIAK  
Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**  
HORTZ KLINIKA

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasunerako profesional taldea zure zerbitzura

Hortza, konpainia eta kolektibo bantekin lizundutako zentroa...

943 20 18 51

R.P.S. 148/12

**bista eder**  
Dentistak

Irribarreak gazte eta egiten gaitu

Implante eta Hortz-Estetikaren adituzak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75

Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA

644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxes: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxeberria Gisasola**  
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**  
Hortz-Klinika  
Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90

RPS 04/02

**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**hartz-klinika**  
**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urklizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Tel.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

RPS 336/05

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
hartz-klinika

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
ERREHABILITAZIOA

\* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala  
\* Min-Unitatea  
\* Inkontinentzia urinarioak  
\* Kirol medikuntza  
\* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika

**abontza**  
clínica estética

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoa
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Egungoan, 6 behea - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

## Fisioterapia

**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20  
TEL. 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA**  
ZENTRUA

**FISIOTERAPIA**

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA  
NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak

  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainartea  
943 20 19 82

  
Clínica Oftalmológica  
**RECALDE**  
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiroprodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

  
T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**

  
BIDEARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050


ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

## Podologoak

**PODOLOGOA**

  
Maidier Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

  
**PODOLOGO**  
T. ORTOPÉDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzazako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

  
**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. beheko  
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina  
PSIKOLOGOA  
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
--- (Ume eta helduendako) ---

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

## Psikologoak

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA

  
Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@hotmail.com

943 101 201

  
**BURUZ**  
GARUN-GIMNASIOA

Buruaren aktibitateari eusteak dementsia izateko arriskua gutxitzen du, ez baitugu ahaztu behar estimulatu ezean neuronak atrofiatu egiten direla

- Taldeentzako ikastaroak
- Banakako saioak
- Familia orientabidea

San Agustín, 2 (0 lokala) -EIBAR-  
www.buruzgimnasiocerebral.com

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa

  
Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (implanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan oinarrituta den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857

Hemen zure tokia izan nahi baduzu: deitu 943-206776 telefono zenbakira

## Herriko waterpolistak elitekoekin Bartzelonan

**LAU EGUN EMAN DITUZTE URBAT-URKOTRONIK WATERPOLO ESKOLAKO-EK**, Irungo Bidasoakoekin batera, Bartzelonan hango talde onenekin entsaioetan eta entrenamenduak egiten: eguenean San Feliuren infantil eta kadete mailakoekin jardun zuten eta barixakuan entrenamendu bikoi-tza egin zuten Sergi Pérez prestatzaile ospetsuarekin Barcelonetako (Ligako irabazleak) eta Montjuich historikoaren igerilekue-tan. Bi ordutan jardun zuten hor, golak alde batean, golak bestean. Eta zapatuan Ohorezko mailan diharduen beste klub handi

baten, Mediterraniren, igerilekuan azken entrenamenduak egin zituzten estatuko harrobi indartsuenarekin indarrak neurtuz.

### Mutrikuko torneoa

Gaur eta bihar, urteroko Mutrikuko torneoarekin, itxiko dute denboraldia Urbatekoek. Gizonezkoen 16 talde (tartean, Ohorezko mailako San Andreu), emakumezkoen sei (lau Ohorezko mailakoak) eta infantil mailako beste sei izango dira Mutrikuko urretan klasikoa bihurtu den torneoa irabazteko ahaleginetan.



Bestalde, datorren denboraldirako izen-emateak zabalik daude: Orbea kiroldegira joan daitezke martitzen, eguen eta barixakuetan, 18.00etatik aurrera edo, bestela, 688-610627 telefono zenbakira deitu.




## Aitor Arakistain eibartarra nagusi Arlabaneko igoeran

**SILVER CAR S-2 BATEKIN NAGUSITU ZEN DOMEKAN EIBAR-KO PILOTOA**, 3 minutu, 18 segundo eta 8 hamarrekoko denborarekin, Joseba Iraola bigarrenari bi segundo eta erdiko aldean kenduz eta Ruben Nogueira hirugarrenari zazpi segundotik gora. Monoplazetako modalitate horretan, Aitor Zabaleta proba irabazteko faborito nagusienetakoak bertan behera laga behar izan zuen Arlabaneko igoera entrenamenduak hasi eta kilometro gutxira bere Lola BMW-ren motorrak amore eman zuenean. Aurten aldaketa nabarmena zuen ibilbideak, Gatzagako errepidetik joan beharrean parte-hartzaileek Eskoriatza Arlabanekin lotzen duen GI-627tik joan baitziren.

## Pilotari beteranoak nagusi Amañan

**PILOTAN EGITEA AHAZTU EZ ZAIELA ERAKUTSI ZUTEN LUIS NARBAIZA ETA BARRIO** beterranoek Amañako jaien egitarauaren barruan Zubizarreta eta Agirresaroberi 22-17 irabaziz. Lehenengo partiduan, bestalde, Santamaria-Larrauri bikotea 22-19 nagusitu zitzaion Narbaiza-Andonegiri. Antolazailak eskerrak eman nahi dizkiote Amañako ikastetzeko zuzendaritzari euren aldagelak pilotarien esku lagatzeagatik.



## Javi Bayoren hitzaldiak datorren astean Deporren

### AZKEN URTEOTAN KLUB DEPORTIBOKO MENDI IRTEERETAN PARTE

hartzen duen Javi Bayo sendagile bilbotarrak hitzaldi bi eskainiko ditu Deporren bertan datorren astean: martitzenean "Prevención y autoprotección en la montaña" eskainiko du 19.00etatik aurrera eta eguaztenean,

ordu berean, "Botiquín de montaña". Hitzaldiak aipatutako ar-



loan interesatuta dauden guztiei daude zabaldua.



## Ipuruako gimnasten kurtso amaiera

**AURREKO ZAPATUAN EGIN ZUEN IPURUA GIMNASIA ERRITMIKAKO TALDEAK** denboraldi amaierako jaialdia, 250 neskatilen parte-hartzearekin. Erakustaldia Ipurua kiroldegian egin zuten eta Tania Nagornaiak eta Susana Prietok zuzentzen dituzten talde guztiek denboraldian zehar parte hartu duten lehiaketa guztietan erakutsitako lanen eta emaitzen muestra bat egin zuten jendearen aurrean. Kiroldegiko prestaketeekin batera, klubak klaseak ematen dituzte San Andres ikastetxean, Markinan, Mallabian, Soraluzen, Berriren, Elorriren eta Zumarragan. Hurrengo ikasturterako izena eman daiteke uztailean.


## Eibartarrak nagusi Debako Milian

**GIRO APARTA IZAN ZEN ZAPATUAN DEBAN JOKATUTAKO** bertako Itsas-milia igeriketa proban; eguraldia lagun izan zuten, gainera, esklerosi gaitza duten gaixoen alde antolatutako lasterketan. Martin Aizpiri eta Nora Varela, biak Urbateko ordezkariak, nagusitu ziren helduen proban, Markel Alberdi eta Ioar Urkiri taldeki-deen aurretik; eta, 11 urtetik azpikoaren artean, Jon Osa eibartarra nagusitu zen eta Maite Barrietabeña bigarrena izan zen. Proba amaieran, joko paraolimpikoetara joateko sailkatu den Ander Romaratek omenalditxoak jaso zuen.



## Eibarko xakelariak Benasquen

**AURTEN ERE LAUREHUN BAT XAKELARI BILDU DITU 32 URTETAN JARRAIAN** antolatzen diharduen Benasqueko xake torneoak eta han dira Klub Deportiboko hiru ordezkari: Edu Olabe eta Haritz eta Julen Garro, hirurak Azkoitiko Anaitasuna-Kakute klubeko Hector Sánchez-ekin taldea osatuz. Sistema suitzarra erabiliz hamar txandatarako jokatu beharreko lehiaketan, zazpi jokatu dira dagoeneko eta Garro anaiek 4 puntu dituzte, Olabek 3,5 eta Sánchez-ek 2,5.



Eibar KEko jokalariek aurrendenboraldiko lehenengo saioan. / EKHI BELAR

## Eibar KE herenegun aurkeztu zen

**AZKEN URTEOTAKO TALDE GAZTEENAREKIN AURKEZTU ZEN** eguaztenean Ipuruan hurrengo denboraldian Gaizka Garitano-ren aginduetara jokatu duen Eibar KEko taldea. 21 jokalarirekin hasi zituen entrenamenduak, sasoi honetarako azken urteotan baino jokalaririk gehiagorekin; hori bai, euskal jokalarien aldeko apustua egin dute zuzendaritzakoek eta, momentuz, kanpoko hiru daude barririk: Alcoyanotik etorritako Diego Jiménez eta iaztik jarraituko duten Arroyo eta David Mainz. Datorren eguaztenean Realaren aurka jokatu dute lehenengo partidua Azpeitian (Aranbururen omenez).

## Eibar Eskubaloia estatuko 1. mailara itzuliko da

**EIBAR ESKUBALOIA KLUBAREN SENIOR TALDEAK ESTATUKO 1. MAILAN** jokatu du hurrengo denboraldian, Espainiako Federazioaren baimena lortu ondoren. Modu horretan, gure herriko eskubaloiak J.D. Arrateren desagerpenarekin galdutako maila berreskuratuko du (ez Asobal Ligako maila, baina bai haren 2. taldearena). Jauzi ederra Eibarko taldeak emango duena, azken denboraldian Lurraldeko 2. mailan hasi ondoren hiru-lau urteko bidea egin baitu jauzi batean.

**EMAKUME ETA GIZON MODA**

**Valenciaga**

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

**IGOITZA NAGUSIA**  
Bidebarrieta 20 - beheko eskuma

**M FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errozketa laberak

Egokibetan (Signo poligonoz)

Partikular, mitua eta osagun ezberriak

Korak - Eskalak - Uteurrainko eskalak

Euskal Herri osoko ospitaleen hartzaileak

Nazio eta Nazioarteko irratidok

**Mugica Errozketa**

Funerarioak laberak

TELEFONOA (24 ORDU)  
**943 201 951**

## Lambretten kontzentrazioa asteburuan

**GAUR BERTAN HASI ETA DOMEKARA BITARTEAN LAMBRETTA MOTORREN IX. KONTZENTRAZIOA** egingo da Eibarren eta, horren harira, egitarau zabala prestatu dute Eibarko Lambretta Klubekoek. Aurtengo programa, gainera, hainbat berritasunekin dator: Gasteizko Vimoto banatzailearen laguntzari esker, Lambretta LN 125 motor berria ikusteko aukera izango da. Eta, horrekin batera, zapatuan Arratera joango dira motorzaleak, motorrak bedekatu eta, jarraian, bertan bazkaltzeko.

Lambretta Klubak antolatuta egitarauari gaur gauean ekingo diote, San Kristobalگو

jaietan: 22.45etatik aurrera Mikel Arrietak jardungo du kantuan, Joe Satrianiri eskainitako emanaldian. Eta gauerditik aurrera Lisker taldeak iaz hil zen Josean Salado taldekide ohiari omenaldia egiteko kontzertua emango du. Zapatu goizean Untzagan hasiko den motorzaleen topaketak, berriz, 100 bat lagun elkartzea espero dute antolatzaileek.

09.00etatik 12.00etara parte-hartzaileen akreditazioa egingo da Untzagan. 12.30etatik aurrera kalejiran ibiliko dira Eibarko kaleetan zehar eta jarraian San Kristobalگو IX. Igoerari ekingo diote. 14.15etatik 21.00etara, berriz, Lambretta moto-



Lambrettak protagonista izango dira gure herrian domekara arte. / LEIRE ITURBE

ren erakusketa egingo dute El Corte Inglés-eko plazan. Bien bitartean, 14.30etan Arrateko elizan Lambretta motorren bedekapena egingo dute eta jarraian bazkaria hasiko da Arraten bertan. Parte-hartzaile aipagarrienei sariak banatu ostean, 17.30ak aldera Mutrikura irteera antolatu dute, bainu eta

guzti. Gauean, 23.00etatik aurrera San Kristobal auzoko plazan ospatuko den Udako Fes-tan agurtuko dute eguna. Eta domekan, 10.30etatik aurrera eskualdean ibiltzeko asmoa dute eta, 12.30etan Eibarren kalejira egin ostean, 14.00ak aldera aurtengo kontzentrazioari agur esango diote.



Egaña eta Lizaso oraingoan ere ez dira faltako Kantabriako zitan.

## Giro ederra Amañako jaietan

**BARIXAKUAN HASI ETA DOMEKA ILUNTZERA ARTE, GIRO PAREGABEA** nagusitu zen Amaña auzoan. Jaiari hasiera emateko txupinazoa Jose Luis Novoa Armeria Eskolako zuzendariak ixotu zuen barixaku arratsaldean eta hortik aurrera jai egitaraua osatzen zuten jarduerak bata bestearen atzetik garatzen joan ziren: herri kirolak, entzierro txikia, Willis Drummond, Esne Beltza eta Zea Mays taldeen kontzertua barixakuan; pelota partiduak, herri-bazkaria, umeendako parkea, Amaña-Urko-Amaña herri-krosa, kale-antzerkia, helduen danborrada, suzko erroberak eta berbena zapatuan; eta

meza, umeen danborrada, lorontzi lehia-keta, umeendako jokoak, pailazoak eta Elegancia Mexicana mariatxiaren emanaldia domekan.

Asteburu honetan ere jaiak jarraituko du Amañan: gaur Ixua jatetxean auzoko jubilatuentzat urtero antolatzen den bazkaria egin da eta 21.30etatik aurrera, berriz, bertso-afaria, Sustrai Kolina eta Amets Arzallus bertsolariekin, Caserío jatetxean. Domekan, 11.00etan meza ospatuko da El Salvador Amañako elizan, Goruntz abesbatzak lagunduta eta horrekin agurtuko dituzte aurtengo jaiak, datorren urtera arte.

## Bertso afarirako txartelak

**ARRATE EGUNAREN BEZPERAN, IRAILAREN 7-AN** 21.00etan bertso afaria egingo da Kantabria jatetxean, ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatuta. Bertan Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Igor Elortza bertsolariek jardungo dute. Afarira joateko txartelen salmenta astelehenean hasi zen, bakarrik bazkideentzat, eta uztailaren 20ra bitartean egongo da martxan: txartelak 28 euro balioko du eta bazkide bakoitzak bakarrik txartel baina erosteko aukera izango du, ...eta kitto! Euskara Elkartean bertan (Urkizu, 11 solairuarteran). Bestela, bazkide ez direnentzat sarrerak uztailaren 23tik aurrera ipiniko dituzte salgai, 29 eurotan, Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian.



## Haritz musika ikastaroen kontzertua

**UZTAILAREN 19-AN, EGUE-NEAN III. BIOLIN, PIANO ETA GANBERA** instrumentuentzako Haritz musika ikastaroko ikasleek kontzertua emango dute Coliseo antzokian, 20.00etatik aurrera (sarrerak 3 euro balio du). Haritz Kultur Elkarteak Eibarko Udalaren laguntzaz antolatu duen kontzertuan egunotan musika barnetegi gisara planteatutako kurtsoan parte hartzen dihardutenek jardungo dute: Esther Conde eta Izaskun Etxebeste biolinarekin, Ainara Basaguren biolarekin, Miguel Calvo



Datorren egunean eskainiko dute hirugarren edizioko kontzertua Coliseoan.

biolontxeloarekin, Marta Agirre eta Myriam Telleria (errepertorioa) eta Nerea Ugarte (Abesbatza-Hizkuntza Musikala Tailerra). Antolatzaileen berbetan, *"ikastaroaren helburu nagusia musika ikastea eta irakastea da, giro lasai batean partaidetza bultzatuz, komunikazioa eta talde lana indartuz, inguru natural eder batean. Ikastaroa Elgoibarko Aubixa Barnetegian egiten dihardugu, uztailaren 8tik 19ra bitartean eta kontzertu hau ikastaro amaierako emanaldia izango da"*.



## Sanferminetako txupinazoa Eibarren ere

**URTEROKO OHITURARI JARRAITUTA, ASTIXAREKIN AFARIKETA** diharduten umeek San Fermin jaia ospatu zuten barixakuan: eguerdian anbulategi pareko parkean batu eta Untzagaraino kalejiran joan ziren, San Ferminen atzetik. Behin Untzagara ailegatuta, santuak udaletxeko balkoitik bota zituen gozokiak hartu eta pareko plazara joan ziren, Gorritiren animaliekin ondo baino hobeto pasatzera.



## laburrak

### CIELITOREN KONTZERTUA

Gaur gauerako iragarrita zegoen Cielito Musika Bandaren kontzertua bertan behera laga dute. Tarte batean ez dugu Cielito Eibarren jotzen entzuteko aukerarik izango, baina hurrengo kontzertua irailaren 16an Coliseoan emango dutela aurreratu dute.

### MARRAZKI LEHIAKETA

El Corte Inglés-ak umeentzat marrazki lehiaketa antolatu du Uda Marraztu izenburuari jarraituta biharko, merkataritza zentruko 3. solairuko terrazan. 4 eta 12 urte bitartekoentzat izango den lehiaketa 18.00etan hasiko da eta hainbat sari banatuko dituzte.

### INDALEZIO OJANGUREN


Indalezio Ojanguren XXV. Argazki Lehiaketan parte hartu nahi duenak gehienez 3 argazki zuri-beltzean eta beste 3 koloretan aurkezteko aukera izango du. Epea urriaren 10era arte egongo da zabalik. Lanak entregatzeko zein informazio zabalagoa eskatzeko Portaleara jo daiteke (Bista Eder, 10).



## Irigoien argazkiak Irunen


**UZTAILAREN 28-RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI "ZURI ETA BELTZA"** Jose Luis Irigoien argazki erakusketa Irunen, Irungo Argazki Elkartearen (Izaga, 7 behean). Erakusketak Klub Deportivo boko argazkilariak zuri-beltzean ateratako 22 argazki biltzen ditu eta 19.30etatik 21.30etara zabalduko ditu ateak, ikusi nahi duenarentzat.

## BRIGI ARISTONDO AMUTXASTEGI



### "IZAR BERRIA PIZTU DA ZERUAN"

**FAMILIAREN IZENEAN**, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



*Bere margoak koadroetan ikusteaz gain, azalean ere eraman ditzakegu. Vanessa Ateca bizitza osoa darama margolanak egiten eta 10 urtetik gora tatuajeen munduan. Orain New Yorken dago eta Coliseum Tatto Expo 2012an hartuko du parte, munduko tatuaje-bilera garrantzitsuenean. Inoiz lo egiten ez duen hiritik erantzun digu gure galderei.*

**- New Yorkeko Coliseum Tattoo Expo 2012an hartuko duzu parte. Nola sortu zaizu han egoteko aukera?**

New Yorkeko House Adiction Tattoo estudioan egiten dut lan eta euren ordezkari bezala joango naiz Coliseum Tattoo Expora. Han nire estiloko tatuajeak egingo ditut, hau da, erretratuak eta maori estilokoak.

**- Nola zaude zita horren aurrean?**

Egia esateko, nahiko gogorra izan da dena. Hiru hilabetez marrazten aritu naiz, eten barik, egiten dakidan guztia erakusteko. Azkenean, eurekin parte hartzeko aukeratu ninduten.

**- Zertan diharduzu New Yorken?**

Esan bezala, tatuaje estudio batean nabil lanean eta han tatuatzen dudana guztia nire diseinu propioa da 'free hand' eran. Lanean



Ateca-k egindako erretratoetako bat.



**VANESSA ATECA (tatuatzaile eta margolaria):**

## *“Iraunkortasuna eta irmotasuna ezinbestekoak dira ogibidean garatzeko”*

gogor ibili naiz nire diseinuak erakustaldi horretan aurkeztu ahal izateko eta horiek tatuatuko ditut han. Aurreratu dezaket egiten dihardudan tatuaje batek Penelope Cruz-en aurpegia daramala gazezur mexikar batekin nahastuta, Titanium Ink estilokoa dena.

**- New Yorken zaude, baina zure Eibarko Titanium Ink Tattoo estudioa martxan dago, ezta?**

Bai, hala da. Hiru hilabete gogor daramatzat hemen Titanium Ink Tattooko lana albo batera lagata, nahiz eta zabalik jarraitzen duen hala ere. Horrela egin dut, New Yorkeko erakustaldi hontan tatuatzeko aukeran buru-belarri lanean nabilelako, bizitzako aukera handia baita. Lagun eta familiaren laguntzari esker hemen egotea eramangarriagoa egin zait. Pentsatzen dut ahaleginek bere fruitua ematen dutela az-

kenean eta hemen dago emaitza. Esperientzia hau bizitzea zoragarria da eta artista bezala neure burua gehiago baloratzeko balio izan dit.

**- Margolaritzari ere denbora eskaintzen diozu. Tatuajea eta margolaritza osatu egiten dira?**

Margolaritza eta tatuatzea modu paraleloan eraman ditut. Margolaritzari dagokionean, datorren urtera begira aukera eta proiektuak daude New Yorken. Artista bat garatu egin behar dela pentsatzen dut eta ezin ditu bizitzan zehar irteten zaizkion aukerak ukatu, nahiz eta nire kasuan hemen egoteko esfortzua handia izan den. Txikitik daramat margotu eta marrazten, eta orain dela 11 urte hasi nintzen tatuajeen munduan. Beraz, pentsatzen dut iraunkortasuna eta irmotasuna ezinbestekoak direla ogibide batean garatu ahal izateko.




**JESUS  
ASTIGARRAGA**  
(2012-VII-1)




**Senideen izenean,  
ESKERRIK ASKO**  
*hileta-elizkizunera joan  
eta samin-agurak  
bidali dizkiguzuen guztioi.*

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, GAIZKA Aristondo, atzo lau urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat danon partez.




Zorionak, UNAI Alberdi, atzo zortzi urte bete zendualako. Milla muxu etxekuen partez!!!




Zorionak, OLATZ, atzo sei urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Izar-en partez.




Zorionak, ZOIHARTZE Elizegi, domekan lau urte egingo dozuz-eta. Etxeko guztion partez.




Zorionak, MANEX Goiogana, astelehenian zazpi urte potolo eta haundi egingo dozuz-eta. Maite zaitugun aitta eta ama.




Zorionak, NAHIA, astelehenian zazpi urte egingo dozuzelako. Famelixaren eta, batez be, Jon eta Aitanaren partez.




Ongi etorri, ANETTE Izarra Agirregomez-korta! Zure etorrerak zorionez bete gaittu. Laztan haundi bat famelixa osuaren partez.




Zorionak, JUNE! Domekan hamarreko bat. Muxu potolo bat etxeko danen partez eta prestatu kandelak amatatzeko, asko dira-eta.




Zorionak, MANEX Goigana Muguruza, zure urtebetetzian. Etor, Aroa eta amama Luisa Azkonabitxatik. Muxu asko.




Zorionak, HARITZ, hillaren 19xan bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat ama, aitta eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON (atzo, 14 urte) eta ANDER (gaur, 11), urtiak bete dozuz-eta. Ospatuko dogu bihar dan moduan! Etxekuen eta, batez be, LUKEN lehengusu txikixaren partez!!



Zorionak, JOSU (astelehenian sei urte egin zenduaz-en) eta DANEL (hillaren 24an urtia beteko dozu-eta). Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKHI (ekaiñaren 24an lau urte egin zenduaz-en) eta PAULE (gaur bi betetzen dozuz). Milla muxu potolo, aitta, ama eta famelixaren partez.



Zorionak, AINARA eta MIKEL. Aurreko zapatuan, elegante pasau eta gero, oin zeuei disfrutatzen jarraiketia tokatzen jatzue-eta. Onena opa deutsuegu. Muxu haundi bat kuadrillaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**

**13an: 22.30**  
**14an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**15ean: 17.00, 20.00**  
**16an: 20.30**

**"Hysteria"**

Zuzendaria: Tanya Wexler



**(2 ARETOAN)**

**13an: 22.30**  
**14an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**15ean: 17.00, 20.00**  
**16an: 20.30**

**"Las chicas de la 6ª planta"**

Zuzendaria: Philippe Le Guay



**(ANTZOKIAN)**

**13an: 22.30**  
**14an: 19.45, 22.30**  
**15ean: 20.00**  
**16an: 20.30**

**"El Dictador"**

Zuzendaria: Larry Charles



**(ANTZOKIAN)**

**14an: 17.00**  
**15ean: 17.00**

**"Tengo ganas de ti"**

Zuzendaria: Fernando Glez.



## horoskopoa

**ARIES**

Uda ez da hasi zuk nahi moduan; baina, asteak aurrera joan ahala, gauzak hobetzeraz joko dute. Zu lasai egon eta ez kezkatu tontakeriekin.

**TAURUS**

Asteburu ederra pasatuko duzu lagun artean eta aspaldian izan ez dituzun sentsazioak biziko. Aprobetxatu: ea noiz errepikatzen den bestela...

**GEMINI**

Ezusteko handia jasoko duzu bihar; ezusteko polita, ordea. Azken asteotako txarrerako joera guztiz aldatuko du hortik aurrera.

**CANCER**

Zure hilabetea Frantziako Tourra bezalakoa da: gorabehera handikoa. Ea azken sprinta irabazteko gai zaren eta maillot horia lortzen duzun.

**LEO**

Eguzkitako krema eman ezean, normala da gertatzen zaizuna. Zenbat azal geruza daukazu? Hondartzara zoazen bakoitzean erretzen zara.

**VIRGO**

Beroari aurre egiteko neurriak hartu beharko dituzu. Ez erosotasun kontu batengatik, osasunarengatik baizik. Ez duzu zorabiorik jasan nahi, ezta?

**LIBRA**

Sanferminak pasa dira eta ez dizu zezenak harrapatu. Arraroa da, beti arriskatzen duen horietarikoa baitzara. Hau izango da zure uda!

**SCORPIUS**

Aldaketak dituzu zure bizitzan. Azken aldian sumatzen zenuen zerbait berria gertatzen ari zela, baina orain konfirmatu egingo da.

**SAGITTARIUS**

Joko Olinpikoetan parte hartzeko prestatzen diharduzu ala? Hara eta hona korrika zabitza! Usain Bolt-en marka gaindituko duzu laster.

**CAPRICORNIUS**

Udan jairik jai ibili nahi baduzu, jai batetik bestera dagoen tartean gorputza ondo zaindu beharko duzu. Profesionala izango bazina moduan.

**AQUARIUS**

Saiatuta ere, zorte txarra izanez gero, ez duzu gauza handirik lortuko. Dena aurka jartzen zaizunean, ezer gutxi egin dezakezu patuaren aurka.

**PISCIS**

Ez zaitetz ikaratu bihar gertatuko zaizunarekin, nahiz eta hasiera batean beldurgarria iruditu. Zeinen ausarta zaren konturatuko zara.

**Barixakua 13****AMAÑAKO JAIAK**

**13.30.-** Autobusen irteera Ixua jatetxera.  
**14.00.-** Jubilatueendako bazkaria. Ixua jatetxean.  
**21.30.-** Bertso-afaria, Sustrai Colina eta Unai Iturriaga bertsolariekin. El Caserío jatetxean.

**SANKRISTOBALGO JAIAK**

**19.00.-** Jaien hasierako txupinazoa.  
**19.05.-** Auzokide ezagunari omenaldia: Fernando Beorlegi. Kalejira Mauxitxa txarangarekin.  
**19.30.-** Haurrendako jolasak, Fray Martin Malleako parkean. Tortilla, txorizoa, urdaiazpikoa eta gazta auzoko tabernetan eta Jai Batzordearen barretan.  
**23.00.-** Mikel Arrietaren emanaldia, Joe Satrianiri omenaldia.  
**00.00.-** Kontzertua: Lisker. R&R gaua. Josean Saladori omenaldia.

**Zapatua 14****LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA**

**09.00etatik 12.00etara.-** Parte-hartzaileen akreditazioa eta motorren erakusketa. Untzagan.  
**12.30.-** Kalejira.  
**13.00.-** San Kristobalera IX. Igoera.  
**14.15etatik 21.00etara.-** Lambretta motorren erakusketa. El Corte Ingleseko plazan.  
**14.30.-** Lambretta motorren bedekapena. Arrateko elizan.  
**14.45.-** Anaiarteko bazkaria, Arraten.  
**17.30.-** Irteera, Lambretta motorrekin eta bainua Mutrikun.  
**23.00.-** Udako festa, San Kristobalگو plazan.

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**

**10.30.-** Haurrendako marrazki lehiaketa.  
**11.30.-** Haurrendako Molto motorren kontzentrazio-lasterketa.  
**12.30.-** Herri-sandiada, Aizarnako parkean.  
**13.00.-** Lambretta motorren IX. Igoera San Kristobalera.  
**17.30.-** Erlojupeko umeendako XIX. Igoera San Kristobalera.  
**19.30.-** XIII. Dardo Txapelketa helduentzat.  
21.00.- Herri-afaria plazan.

**SAN KRISTOBALGO JAIAK**

**23.00.-** 60-70 hamarkadetakoko festa. Makrodiskoteka DJ Zenaidarekin.  
**00.00.-** King Africa-ren kontzertua.  
**01.30.-** Udako jaiak. Makrodiskoteka DJ Zenaidarekin.  
**03.00.-** Txokolate-jana.

**Domeka 15****LAMBRETTA KONTZENTRAZIOA**

**10.30.-** Irteera eta hamarretakoa, bermut eta guzti.  
**12.30.-** Parte-hartzaile guztien kalejira, Eibarko kaleetan.  
**14.00.-** Agur ekitaldia.

**AMAÑAKO JAIAK**

**11.00.-** Meza, Goruntz abesbatzarekin. Amañako elizan.

**SANKRISTOBALGO JAIAK**

**11.00.-** Tirolina eta ohe elastikoak, Fray Martin Malleako parkean. Scalextric erakustaldi-lasterketa.  
**11.15.-** Xaboi-tailerra. Aizarnako parkean.  
**12.00.-** Hildakoen aldeko meza.  
**12.30.-** Paella txapelketa plazan.  
**13.00.-** Piskolabisa.  
**17.30.-** Freskagarri eta gozokien banaketa haurrentzat.  
**18.00.-** Zezentxo eta ponyak, Gorixorekin.  
**19.00.-** Lehiaketetako sari-banaketa.  
**19.30.-** Festa DJ Araba-rekin.  
**20.30.-** Rifaren zozketa.  
**21.30.-** Jaien amaierako traka.

**JAIOTAKOAK**

- Anette Izarra Agirregomezkorta. 2012-VII-6.

**HILDAKOAK**

- Brigida Amutxastegi Aristondo. 82 urte. 2012-VII-3.  
- Alicia García Delgado. 81 urte. 2012-VII-4.  
- Jose Luis Bolunburu Trebiño. 89 urte. 2012-VII-5.  
- Bene López Peral. 92 urte. 2012-VII-6.  
- Bittor Luis Casal. 43 urte. 2012-VII-7.  
- Juan Jose Gutiérrez Castro. 83 urte. 2012-VII-8.

**Astelehena 16****BERRIKUNTZA FOROA**

**10.00.-** Berrikuntza Foroaren 2. saioa. Portalean.

**Martitzena 17****HITZALDIA**

**19.00.-** "Prevención y autoprotección en la montaña". Hizlaria: Javi Bayo sendagilea. Klub Deportiboan.

**Eguaztena 18****HITZALDIA**

**19.00.-** "Botiquín de montaña". Hizlaria: Javi Bayo sendagilea. Klub Deportiboan.

**Eguena 19****KONTZERTUA**

**20.00.-** III. Haritz musika ikastaroko kontzertua. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.


## erakusketak

– Uztailaren 13ra arte

**LAMBRETTA** motorren erakusketa.  
*Eibarko dendetan.*

– Uztailaren 15era arte

**FERNANDO BEORLEGI**k egindako koadroen kopia erakusketa. *San Kristobalگو tabernetan.*

– Uztailaren 31ra arte

**JOSE LUIS IRIGOIEN**-en "Baltiko" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*

**ANTONIO LOPEZ**-en argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**AULA 7 TALDEA**ren argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

– Abuztuaren 9ra arte

**"GERRA ETA BAKEA. ZUZENKO BEGIRADAK"** argazki erakusketa. *Portalean.*

## lehiaketak

**Asier Errasti XIII. Laburmetraia Jaialdia**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 5era arte*, www.planocorto.es, www.eibar.net, cultura@eibar.net edo 943708435 telefono zenbakian.

**Indalezio Ojanguren XXV. Argazki Lehiaketa**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 10era arte*, Portalean.

**Gaztetzeko kamiseta lehiaketa**  
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Abuztuaren 6ra arte*, Eibarko gaztetxean edo eibarko\_gazte\_asanblada@hotmail.com helbidean.

## ikastaroak

**Titulazio ofiziala lortzeko begirale ikastaroa**  
Izen-ematea eta informazioa: *Irailaren 11ra arte*, www.urtxintxa.org webgunean edo 943270033.

## telefono jakingarriak

SOS deliak .....	112
Pegora .....	010
Udaletxea .....	943 70 84 00
Portalea .....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas .....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa .....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

**tren ordutegiak**

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## farmaziak

### 13, barixakua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)  
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### 14, zapatua

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)  
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

### 15, domeka

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### 16, astelehena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### 17, martitzena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

### 18, eguaztena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

### 19, eguena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)  
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

### 20, barixakua

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

SUDOKUA

			1	5	8	9		
		7	2					
8					9		6	
2	4						3	7
7								2
3	8					5		1
	9		5					4
					4	1		
		8	9	2	3			

## DENBORAPASAK

7	0	3	4	6	9	2	1	5
6	8	5	2	7	1	0	3	4
4	1	2	5	3	0	6	9	7
1	4	6	8	2	6	9	7	3
3	2	8	7	9	4	6	0	1
5	7	9	8	1	9	4	2	8
2	8	4	1	8	7	3	5	0
8	3	7	9	5	8	1	4	2
9	5	1	3	4	2	7	8	6

AURREKOAREN EMAITZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisia salgai Eibarko erdialdean. 130 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. Tel. 626-203838.
- Ubixta kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Sarzako moduan. Igogailua eta gas naturala. 90.000 euro. Goizez deitu. Tel. 659-088244.
- Babes ofizialeko pisua salgai Amaniñan. Tel. 636-458967 eta 650-497992. Rikardo.

### 1.2. Errentan

- Pisia alokagai Polonia Etxebarria kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Berriztua eta jantzita. Tel. 696-215551.
- Pisia alokagai Saturraranean, uztaila, abuztua eta irailerako. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza ederra. Igerilekua eta frontoia. Tel. 676-430299.
- Cadizen apartamentua alokagai uztailan eta irailean, Sancti Petrin. 2 logela. Igerilekua. Padela. Tel. 644-546993.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 669-966611.
- Pisia alokagai Debako alamedan uztaila eta abuzturako. Berriztua. Prezio onean. Deitu 12.00etatik 17.00etara. Tel. 943-701394.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Asua-Errekan. Tel. 616-959625.
- Garajea alokagai Asua-Errekan. Sarbide azkarra. Tel. 670-793312.
- Ilepaindegia alokagai. Aukera paregabea. Oso ekonomikoa. Arazo pertsonalengatik lagatzen da. Tel. 667-806737.
- Txomon garajea alokagai. Tel. 617-688311. Maria.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Emakumea eskaintzen da etxekolana egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 649-258913.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 630-826813.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 605-129530.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko orduka. Tel. 626-197217.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 638-047847.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gausez. Tel. 638-515953.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 654-916914.
- Emakume euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 659-101631.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko, etb. Tel. 618-298636.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendari jarduteko. Tel. 636-419814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko (gausez zein egunez). Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, garbiketarak egiteko eta ileapaintzaile jarduteko. Tel. 663-430810.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta garbiketarak egiteko. Tel. 943-200939 eta 696-496427.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixok zaintzeko eta etxeko garbiketarak egiteko. Tel. 617-571210.
- LHko gradua egiten diharduen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko uztailaren 15era arte. Goiz edo arratsalde. Tel. 625-389427.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 625-814727.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo andrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Goizez deitu. Tel. 943-201979.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 686-578228.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Erreferentziak. Tel. 639-606550.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 634-887814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 698-567680.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 689-436454.
- Mutila eskaintzen da gausez nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 669-525631.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Tel. 652-779800.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Tel. 628-238955.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 616-218076.

### 4.2. Langile bila

- Neska euskalduna behar da irailetik aurrera umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Arratsalde deitu. Tel. 637-012625.
- Ilepaintzailea behar da ilepaintedegi batean. Jornada erdiz eta ostiraletan egun osoz. Esperientzia baloratuko da. Tel. 675-462463.
- Hotel-zuzendaria eta maitrea behar ditugu Debako eta Lekeitioko Aisia hoteletan. Bidali curriculum-a rrrhh@aisiahoteles.com helbidera.
- Ofiziala behar da El Corte Inglés-ko ilepaintedegirako. Curriculum-a bertara eraman edo deitu. Tel. 615-188691.
- Eibarko ilepaintedegi batean ilepaintedegileak behar dira: 1. ofiziala eta 2. ofiziala. Tel. 637-528992.
- Sukaldaria eta garbitzaileak behar dira laster zabalduko den zentroan. Bidali curriculum-a eta argazkia: Eibarko 403 posta-kutxatila.
- Fisioterapeuta eta kiromasajista behar dira Eibarko ilepaintedegi batean. Lan-giro bikaina. Tel. 678-674250.
- Sukaldaria behar da jatetxe batean. Esperientziarekin. Tel. 654-958684.

- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. 4 ordu. Tel. 678-386033.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Irakaslea behar da akademia batean. LHtik Batxilergo mailaraino. Curriculum-a bidali: akademialana@gmail.com. Tel. 696-295098.

### 5.2. Eskaintzak

- Gitarra elektrikoko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta dibertigarria. Merke. Tel. 679-740061.
- Uztailan DBHko eta Batxilergoko Matematikak, Ingelesa eta Euskara errepasatzen eta prestatzen lagunduko nuke. Tel. 685-739709.
- Alemanierazko klaseak ematen ditut. Metodo atsegina. Adin guztiak. Tel. 647-275374.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Bigarren eskuko 3. mailako DBHko liburuak salgai. Egoera onean. Tel. 676-752278.
- Thule markako autorako kajoia salgai, eusteko barrak barne. Prezio onean. Tel. 687-044379. Olatz.

### 6.2. Eman


- Txakurren janaria oparitzen dut. Royal Canin Adult. Ertain tamainakoendako. Tel. 676-556739. Iñaki.
- Pegorako 15 buzoien pack-a oparitzen da. Tel. 617-688311. Maria.
- Sukaldeko mahaia eta aulkiak behar ditut eta umeen gelarako bi ohekabi. Tel. 609-918803.
- Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.

### 6.3. Galdu/Aurkitu


- Hilaren 3an Urkizu parke inguruan giltz-sorta galdu nuen. Tel. 649-344932.

### 6.4. Bestelakoak

- Ortua erosiko nuke (edo terrenua ortua ipintzeko) Ermua aldean. Tel. 627-833274.
- Ikasten-ek bulegorako erdi tamainako artxibategia behar du. Tel. 626-773676.



# Aisia Deban Chill Out Terraza estreinatzen dugu



- Zentzumenen bitarteko luxua
- Musika zuzenean
- Berehala prestatutako cocktail-ak



**DEBA**  
Markiegi, 6 (Tel. 943-608052)

**OSTIRAL eta LARUNBATetan,**  
**20.00etatik aurrera**

Informazio gehiago:  
[www.aisiahoteles.com](http://www.aisiahoteles.com)



## Arrateko Bertso-Afaria

Irailak 7 barixakua 21.00etan

SEBASTIANLIZASO ANDONIEGAÑA BEÑATGAZTELMENDI IGORELORTZA

**SARRERAK BAZKIDEENTZAT** salgai 28 eurotan (bazkide bakoitzak sarrera bana)  
uztailaren 20ra arte ...eta kitto!n: 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara.

**BAZKIDE EZ DIRENENTZAT:** uztailaren 23tik aurrera  
Sagar Bitza, Kultu eta Kantabrian. 29 euro.

**ZERBITZUA**

**ADMINISTRAZIOA**

**BILERAK**

**GESTIOA**

# EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

## KOMUNITATEAK

### 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN BIDE**

**AUTO ESKOLA**

**AUTO ESCUELA**

**CURSOS INTENSIVOS**

**ORDUTEGIA:**  
**09.30-13.00**  
**15.30-20.30**

## GIDA-BAIMENAK

**San Andres, 1 ac**  
**Tel. 943 20 34 45**  
**EIBAR**